

Zohikaztegiak

Harrigarriak bezain ezezagunak diren mendiko hezeguneak



Zohikaztegiak hainbat landarek estrategia karniboroak garatu dituzte bizi ahal izateko • MIKEL ESTONBA

MIKEL ESTONBA

Menditik ibiltzea gustuko dutenek, segur aski, noizbait botekin zapal dutakoan ura jariatzaren duten esponja moduko larre hezeak zeharkatu dituzte. Gure mendietan, drainatze eskaseko lepoetan, hegien erlaitzetan edo, beste edozein arrazoiengatik, ura lurrazaletik nahiko hurbil mantentzen duten mendiko inguruetan agertu ohi diren larre berezi hauek zohikaztegiak dira, eta hezeguneen artean, motarik ezezaguna osatzen dute.

Zohikaztegiak, normalean harri iragazgaitzen zokoguneetan sortzen direnez, urez asetatiko alderdiak dira, eta horregatik, bertan oxigenoa urria da. Horrez gain, toki horietan tenperatura baxuak nagusi dira; bi faktore horiek materia organikoa hartxiduraren bidez deskonposatzea eragiten dute. Prozesu horretan, materia organikoa erabat usteldu gabe geratzen da; ondorioz, zohikatz ize-

nez ezaguna den harri organikoaren metaketa gertatzen da. Zohikatzak loditasun handia hartzen duenean, zohikaztegi baten aurrean aurkituko gara.

Zohikatz hainbat mantengai mineraletan oso pobrea da, erabat deskonposatu gabeko materia organikotik sortzen den lurzoru azido horretan elementu horiek laster galtzen baitira. Horrek, bertako bizidunek moldaerak garatzea ekarri du. Moldaera horien artean, aipagarria da hainbat landare-espezien animalietatik mantengai horiek lortzeko garatu dituzten estrategia karniboroak.

Bestaldetik, zohikaztegiaren nagusi diren baldintza anoxiko eta azidoei esker, ingurune horietan harrapatuak gelditzen diren elementuak (lore-hautsa, egurrak, animalia eta landareen hondakinak), denbora pasa arren, egoera onean mantentzen dira. Hori dela eta, arkeologiaren eta paleoklimatologiaren ikuspegitik zohikaztegiak balio handiko tokiak dira. Zohi-

Euskal Herrian orain arte ez dira batere zaindu, eta, neurririk hartu ezean, arriskuan daude

kaztegiaren lortutako hainbat frogari esker, historiaren aldetan Lurraren atmosfera-ezaugarriak edo landarearen konposizioa ezagutu ahal izateko aztarna baliotsuak lortu dira, baita antzinako giza kulturak ulertzeko datu interesgarriak ere.

Zohikaztegiak bizitzari dagokienez, bertako ingurumen-baldintza bereziak direla eta, nagusiki, baldintza horietan bizi ahal izateko moldaera harrigarriak garatu dituzten espezieez osatuta dagoela aipatu behar da. Gainera, ingurumen-baldintza berezi horien ondorioz, zohikaztegiak, glaziazio-garaietan gure mendietan arruntak izango zirakeen latitude hotzagoetako hainbat landare-espezieren azkeneko gordeleku bihurtu dira.

Esfagnoen bizileku

Zalantzarik gabe, zohikaztegiak bizidun garrantzitsuena eta era berean ugariena esfagno izenez ezaguna den grol-

dioa da. Izan ere, zohikatz nagusiki esfagnoen hondakinez sortzen da. Hau esfagnoen hazkunde bereziaren ondorio zuzena da; barrualdeko zatia hil egiten da, baina esfagnoak kanporantz hazten jarraitzen baitute. Esfagnoek ura barruan gordetzeko ahalmen handia dute, eta horregatik, zohikaztegiak eginkizun garrantzitsua betetzen dute mendiko erreka eta latsen ur-emia kontrolatzeko orduan.

Zohikaztegiaren erdialdetik urruntzen garen heinean, lurzoruaren hezetasuna gutxitzen doa, eta horrekin batera, landaredia ere aldatzen da. Esfagnokomunitateen ondoan, ohikoa da hainbat ihi-espezien osatutako ihitokiak aurkitzea, eta horien ondoan, soilik noizbehinka istiltzen diren alderdietan, hainbat txilar-espezien osatutako txilardiak agertu ohi dira.

Faunari dagokionez, zohikaztegiak hegazti-komunitate joriak erakartzen ez dituztenez, ez dira orain arte behar bezala

baliotsu. Hala ere, zohikaztegiak oso garrantzitsuak dira mendiko hainbat anfibio-espezieren ugalketarako. Aipatzekoa da, halaber, bizi-zikloan fase urtarra duten hainbat intsektuarentzat ere zohikaztegiak ezinbestekoak direla, hala nola, burrunzi eta sorgin-orratzak, eltxoak, efemerak.

Euskal Herrian

Euskal Herrian ez dugu aurkituko Eskozian edo Irlandan sortzen diren azalera handiko zohikaztegi neurrikerik, baina gure mendilerrotako lepo eta hegiatan, tamaina txikiiko zohikaztegiak nahiko ugariak dira. Tamaina txikiak eta ornitologia-ikuspegitik duten garrantzi eskasak ustekabeen igarotzea eta hezeguneak babestu eta mantentzeko aurrera eraman diren politiketan kontuan ez izatea eragin dute. Zorionez, azken urte hauetako ikerketa sakonagoek zohikaztegiaren balio natural, arkeologiko eta paleoklimatikoak agerian utzi dituzte, eta honi esker, babesa

emateko kontuan hartzen hasi dira. Gainera, gaur egun Euskal Herrian aurkitzen ditugun zohikaztegi gehienak baldintza klimatiko gogorragoak nagusi ziren garaietan sortu zirela kontuan hartu behar dugu, egungo ezaugarri klimatikoek zohikaztegi berriak sortzeko egokiak ez baitira. Beraz, zohikaztegiak suntsituz gero, nekez lehengoratu daitezke.

Hala ere, kasu askotan, horrek ez ditu gelditu zohikaztegiak jasaten dituzten erasoak. Erasoetatik, eraginik bortitzena sortzen duena lorezaintzarako zohikatzaren erauzketa da, jarduera horrek irazera industrial hartu duen lekuetan zohikaztegiak ia desagertzera eraman baititu. Zohikaztegiak mehatxatzen dituzten beste jarduerak abeltzaintzarako erabiltzea, mendiko pistak emendatzea eta zohikaztegiak ezaugarri hidrologikoak eraldatzea dira.

Duela gutxi arte, zohikaztegiak ez dira hezegune gisa onartu, beraz, asko erabat desagertu dira, eta beste askok eraldaketa larriak pairatu dituzte. Azken urteotan, hezeguneak mantentzeko egitasmoetan zohikaztegiak kontuan hartzen hasi badi-ra ere, orain, asmo horiek ez dira paperetik haratago joan, eta, beraz, egoera aldatu ezean, zohikaztegiaren kontserbazioa ezin da segurutzat jotzea.

Arkeologiaren eta paleoklimatologiaren ikuspegitik balio handiko tokiak dira zohikaztegiak